

DURANGALDEKO GAZTEEN VI. ARTE LEHIAKETAKO OINARRIAK

- 1. NORI ZUZENDUA:** Durangaldeko gazteek 13 eta 18 urte arteko parte hartu dezakete.
- 2. PARTE-HARTZEA:** Artista bakoitzeko artelan bat onartuko dugu, eta lan hori ezin izango da lehenagoko beste lehiaketaren baten saritutakoa izan.
- 3. MODALITATEAK:** Pintura eta Marrazketa.
- 4. GAIA ETA TEKNIKA:** Gaia eta teknika libreak izango dira.
- 5. NEURRIAK:** Gehienez 30F (92x73 cm), ez dago gutxineko neurririk.
- 6. ZELAN AURKEZTU:** Lanak marko barik aurkeztu beharko dira. Akuarela, marrazki eta antzekoak euskarri gogorretan aurkeztu beharko dira.
- 7. DATUAK ETA IRUDI ESKUBIDEAK:** Artelana aurkezterakoan, parte-hartzaileek fitxa bat beteko dute, honako datuekin: titulua, neurriak, egilearen izena, adina, helbide elektronikoa, telefonoa, eta herria.
Halaber, ikasleen adina dela eta, aitarenean, amarenean edo legezko tutorearenean baimena ere bete eta aurkeztu beharko dute lehiaketan parte hartzeko eta, haren ondorioz, paperezko, ikus-entzunezko edota interneterako sortu daitezkeen irudiak argitaratzeko ere. Baimena dokumentu honetako izen-emate orriarekin batera dago; izen-ematea deskarga daiteke (faceboock-a: asociacionartisticadurango) edo Ezkurdiko Aretoan jasotzea.
- 8. DATUEN BABESA:** Partaideen adina dela eta, gazteek tutore edo legezko ordezkari baten baimena aurkeztu beharko dute. Emandako datuak lehiaketako saridunak identifikatzeko baino ez dira erabiliko, eta ezabatu egingo ditugu sariketa amaitzerakoan, horrela, datuen babeserako 15/1999 Lege Organikoa beteaz (BOE-A-1999-23750).
- 9. SARIAK:** Hiru sari egongo dira eta 10 accesit, sari horiez gain, artelan originalenarentzako sari berezia ere. Azken lan hori hurrengo lehiaketaren zabalkundea egiteko erabiliko da. Sarietaz gain, irabazleek diplomak ere jasoko dituzte.
- 10. EPEA:** Artelanak 2022ko azaroaren 22tik abenduaren 4ra, Durangoko Arte eta Historia Museoan, Sanagustinalde kalea 16, b.j. Martitzenetik barikuetara 10:00etatik 13:00era eta 17:00etik 20:00etara. Zapatuetan 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, eta domeketan eta jai egunetan, 11:00etatik 14:00etara. Tel: 94 603 00 20
- 11. EPAIMAHAIAREN ERABAKIA:** 2022ko abenduaren 18an hartuko du erabakia epaimahaiak, eta egun horretan egingo da sari-banaketa, 13:00ean. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

12. ERAKUSKETA: Erakusketa 2022ko abenduaren 9tik 18ra arte egongo da Ezkurdiko Udal Aretoan. Orduategia: astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara; larunbat, igande eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

13. ARTELANAK HARTZEA: Erakusketako azken egunean bertan hartu ahalko dira artelanak, baita abenduaren 19an eta 20an, Ezkurdi Aretoan, 18:00etatik 20:00etara. Hartzen ez diren artelanak antolakuntzaren esku geratuko dira.

14. ERANTZUKIZUNA: Durangaldeko Artisten Elkartek ez du erantzukizunik hartuko, artelanak hondatu, galdu edo erretzen badira, edota lapurretaren bat egoten bada.

15. ONARPENA: Sariketan parte hartzen dutenek, oinarri hauek onartu behar dituzte. Oinarrietakoren bat bete ezean, artelana lehiaketaz kanpo geratuko da.

